

Hizkuntzen eta kulturen topaketa Kanbon.

Urte guziz biltzen dira herri-hizkuntzetaz arduratzen diren erakunde eta elkarteetako ordezkariak. Aurten Kanbon zen bilkura, Arnaga toki zoragarrian, azaroaren 7tik 10era. Eta gain nagusia zen "hizkuntza politika eskualdeka, Estatuaren aldetik eta Europa mailan". 60 ordezkari elkarretaratu gira, Frantziako eta Itsas-haindiko 10 eskualdetik. Euskal Herrira etorri dira Alsazia, Britainia, Korsika, Okzitania, Katalunia, Guiana, bai eta ere Martinika, Maiot eta Reunion ugarteak.

Vincent Bru, Herrien arteko euskal sindikataren buruzagia, gainera Kanboko auzapez eta kontseilari nagusia dena, topaketaren kudeatzailea zen. Bereziki Guy Perez eta Pantxika Maitiaren laguntza suharrarekin, antolaketa bikaina izan da, bai egoitzaren eta ostatuaren aldetik, Vacancier bakantza gunean, bai eta ere bilkuren agitarauaren aldetik.

Elkarteko administrazioaren onarpenarekin, lau egiturek parte hartu dute topaketaren kudeantzan, Herrien arteko euskal sindikatak, Euskal kultur erakundeak, Euskararen erakunde publikoak eta Euskal konfederazioak.

Lehen egunean gertakarien gutarteko trukaketa

Eskualde bakoitzak gutartean erakutsi dauku aurten edo azken urte hauetan zer gertatu den hizkuntza politikaren alorrean. Hizkuntza politika aipatzen da botere publikoak bere gain hartzen duelarik herri-hizkuntzen zaintzea eta aitzinaraztea. Eskualde askok aipatu dituzte politika gora-beherak, "yo yo"jostailuaren moldean. Adibidez Alsazia zen orain arte aitzindari irakaskuntza elebidunean. Gaurregun Hezkuntza ministeritak ez ditu errespetatzen zintatu dituen hitzarmenak, hainbestetaraino nun iragan buruilean argitaratu duen herri-hizkuntzen zerrendan alsaziako hizkuntza ez baitzen agertzen ere. Kreol hizkuntza ere ez funtsean. Alta itsas-haindiko ugarteetan denek erabiltzen duten mintzaira da. Baina ministeritzaren ikusmoldetik ez da egiazko hizkuntza, hizkuntza nahasketa bat baizik.

Kortsikak badu administrazio molde berezia eta irakaskuntza eskualdearen gain baita, haur guziek kotsikera eskolan ikasten dute, astean 3 orenez. Baina zer ikas ditake 3 orenez, familiak eta bazterrak arrunt frantsestuak direlarik ?

Aldi bakoitz diagnosis orokor bat egiteko ordez, eskualdeetako ordezkariak oraingo gertakizunak aurkeztu dituzte, besteentzat ere baliagarriak izaten ahal direlakoan. Adibidez, Ipar Euskal Herrian Euskararen erakunde publikoak hizkuntza politikaren 2006-2010 egitasmoa darama, hizkuntza teknikarien sarea sortuz, hitzarmenak izenpetu direlarik Kontseilu Nagusiaren eta Hezkuntza Ministeritzaren artean, EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Bestalde aurkeztu dugu berrikitan Euskal kultur erakundeak egin duen ikerketa bat, kiskuntza, kultura eta nortasun kolektiboaren arteko loturak erakusten dituena : inkesta hau izan baita 2007 - 20013 Kultura egitasmoaren abiapundua.

Arrastirian pidaia bat egin dugu Donostira Koldo, Mitxelena kultur-gunera "BatekMila" erakusgaia ikusteko eta Miren Azkarate Kultura Sailburua entzuteko, Jaurlaritzaren hizkuntza politika jarraibide on bat baita ororentzat. Gero elkarrizketak segitu dira ... sagardotegian.

Bigarren egunean, Europa eta hedabide berriak

Eskualdeetako hizkuntzek badute oraingo hedabide tresna berrien beharra. Irratietako eta telebistetako espertak entzun ditugu. Adibidez numerizazioak zer aldaketa harrigarriak ekarriko dituen, herri-hizkuntzek ere baliatu behar dituztenak aitzinatu nahi badute. Mugaz gaineko hedabideek ere badituzte zailtasunak : lehen hertz-uhinetan errexki pasatzen zen Euskal Telebista, orain ez da pasatzen (TNT) lurreko tresna numerikoarekin. Zergatik gertatzen da hedabide berriak, zaharrak baino traketsagoak izatea ? Telebista zuzendari batek zion, hemendik goiti hedabideek satelita erabiliko dutela muga guziak gainditzeko. "Euskara jalgi hadi ... zerura !".

Europari buruzko mintzaldi aberats bat entzun dugu ingelesez, itzulgailuak beharrietan. Europako erakundeek, aldebatetik hizkuntzen eta kulturen aniztasuna goraki aipatzen dute eta bestalde gauza anitz egiten 15 hizkuntza ofizialen alde. Gure gain da baliabide berak erabiltzea herri-hizkuntza ahulagoen alde, elgarrekin jokatuz proiektuak finkatzeko eta diru laguntzak ardiesteko. Alor hontan ere gauzak akulatuz aitzinarazten dira.

Eguna goxoki bururatu dugu, eskualdeetako janari eta edari bereziak jastatzuz, sukaldaritza ere kulturgai bat baita.

Azken egunean, biltzar nagusia

Topaketaren helburua da eskualdeen arteko lankidetzaren antolatzea. Gauza batzu baditugu ardiesteko gobernuaren aldetik. Ordezkaritza bakoitzak demartxa egiten badu bere eskualdean, erretxago izanen da elkartearen bulegoarentzat negoziazioak akulatzea Parisen.

Bi helburu finkatu ditugu. Alde batetik CNFPT erakunde ofizialak bere gain har ditzan herriko etxeetan lan egiten dutenen formakuntza elebiduna. Bistan da Euskal Herrian irakaskuntza AEK elkarteak segurtatuko duela. Baina zerbitzu publiko bat betetzen duelakotz, diru publikoz ordaintzea hartze dute.

Bestalde, 1999ko jende-kondaketan egin zen ikerketa biziki interesgarria, familiako hizkuntza jarraipenaz. Orain jendetza kondatzeko moldea aldatu da, urte guziz egiten baita, eta hizkuntzeri buruzko ikerketa gelditu da. Erabaki dugu ordezkaritza bakoitza ez baidatuko dela bere eskualdeko INSEE estatistika erakundearekin, eta elkartearen bulegoak Parisen negoziatuko duela hizkuntzen jarraipenari buruzko inkesta sartzea oraingo erroldan, 1995ean Euskal kultur erakundeak ardietsi zuen bezala.

Gainera gutarteko elkartasuna adierazi dugu denek batean eskaera bat eginez berriz ere Alsaziako hizkuntza eta ugarteetako kreolerak sar diten Hezkuntza ministeritzako zerrendetan eta behar bezala irats ditzaten ikastetxe guzietan.

Bururatzean gomita ukan dugu helduden urteko topaketak Guianan egiteko. Holaxet ikusiko dugu zer aitzinamendu izan den urte batez herri-hizkuntzentzat, eta ezagutzak eginen ditugu hamar hizkuntza eta kultura ezberdin dituen eskualde batekin.

Hanzen bat, Erramun Bachoc

